

# GURE HIZKUNTZAREN HISTORIA

UDANE HERRERA  
IKASLEA


“Euskararen egiazko misterioa ez da jatorria, iraupena baizik”, hori esan zuen Koldo Mitxelenak euskarari buruz dakigun ia gauza guztia aztertzen eta aurkezten zituen bitartean. Orain, berriz, berak esandako eta beste pertsona askok esandako informazioa bildu eta euskarari buruzko erreportaje hau sortu dut.

## MUNDUKO MAPA KOLORETSUA:

Munduan milaka hizkuntza sortu ziren, eta horiek guztiak hitz egiten dira, batzuek besteek baino hiztun gehiago izan arren. Gehien hitz egiten diren hizkuntzak honako hauek dira:

1. Txinera (Mandarin)
2. Gaztelera
3. Ingelesa


Euskara, 51. postuan kokatzen da mundu mailan. Hizkuntza ezagunenak erabiltzen dira mapetan nun hitz egiten diren esan dezaten. Horregatik, Karène Pao, mundu mailan azkeneko postuan dagoena, hau da, oso-oso hiztun gutxi dituenek, hizkuntzen mapa honetan ez da agertzen.




Euskara mapahorretan agertu behar litzateke. Euskal Herri osoan 3.000.000 biztanle izanda, %43,72 daki euskaraz hitz egiten, baina, %8,9 dira kaletik erabiltzen dutenak. Zehazki, Nafarroan, 650.000 biztanletik, %24,2 dira gai euskaraz hitz egiteko eta %6,7-k hitz egiten dute kalean;

EAE-n 2.000.000 biztanle inguru daude, horietatik %61,45-ek dakite euskaraz hitz egiten eta %14,8-k erabiltzen du kalean; eta azkenik, ipar Euskal Herrian 300.000 biztanletik, %45,55-ek hitz egin dezake euskaraz, baina %5,3-ek erabiltzen dute kalean. Honekin esan nahi dudana da hizkuntza bat hitz egiten jakiteak ez duela esan nahi guztiek hitz egiten dutela, baina, ondo legokeela jende gehiagok saiakera txiki bat egitea hitz egiten dakiten hizkuntza hori ez galtzeko, edota galdu ez arren, hizkuntza bat dakitenez eta erabiltzeko aukera dutenez, erabil dezakeela, ez baitu ahalegin handirik beharko.

EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA



KALE ERABILERA



## ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN?

Guztira, 7.000 hizkuntza daude munduan. Aitzitik, pertsona askok hizkuntza gutxiago daudela pentsatzen dute, hizkuntza horiek ez direlako entzuten, hori dela eta, ez dira ezagutzen eta ez dituzte ia inork erabiltzen. Hori esan eta gero, jakin beharko genuke hizkuntza guztiek ez dutela garrantzi bera: batzuk mundu osoan erabili daitezke herrialde desberdinetan komunikatzeko; beste hizkuntza batzuk, berriz, bakarrik herri txiki batean hitz egiten dira. Adibidez, lehen esan dudana bezala, Karène Pao hizkuntza arraro-arraroa da, zehatz-mehatz, mundu mailako zerrendan azkeneko hizkuntza da, eta horregatik ez da erabiltzen. Hizkuntza horren guztiz kontrakoa Txinera (Mandarin) da, mundu mailako zerrendan lehenengoa dagoelako eta munduan pertsona askok hitz egiten dutelako.

## HIZTUN KOPURUA:

Eskalaren jokoan deitzen den jokoan, 0-an azken hiztuna galdu duten hizkuntzak jartzen direnetik goraka doa 10-ean hiztun gehien dituen hizkuntza jartzen den arte: Euskara 9.-tik gorakoan dago, 1.000.000 pertsonak hitz egiten dutelako.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Kalean aurkitutako pertsona gehienek euskara, eskalan, 3-an edo 4-an zegoela pentasatzen zuten, hurrengo arrazoiengatik: Euskal Herria txikia

delako, eta hizkuntza hau hitz egiten duten bakarrak guk garelako; proportzioarengatik; hitz egiten dakiten pertsonak ez dutelako bultzatzen, hau da, ez dute euskara erabiltzen; ez daukalako indarrarik; 7.000 hizkuntza asko direlako; beste hizkuntza batzuek euskarak baino hitzun gehiago dituztelako; eta, Espainia eta Frantziaren ondoan gaudelako eta hain hizkuntza zabalduta dutenez, guk txikiagotuta ikustendugulako geure burua. Ethnologue erakundearen arabera, 400 hizkuntza dira munduan 1.000.000 hitzun dituztenak, eta euskara horietako bat da, hau da, munduan euskara hitzun gehien dituzten herrien %10-ean dago. Esukaldunen artean, EAE-koak 790.000 dira, Nafarroakoak 75.000, eta Ipar Euskal Herrikoak 57.000 biztanle, hau da, guztira, 922.000 hitzun ditu euskarak. Eta zenbaki hori gero eta gehiago igotzen ari da poliki-poliki, jendea gure hizkuntza polit hau ikasten ari da eta.

## CALVET BAROMETROA:



Calvet, barometroa sortu zuen gizona, soziolinguista eta frantsesa zen (argazkian agertzen den pertsona da). Barometroak hizkuntzen bizi-indarra neurtzen du.

Calveten ustean, hiztun kopurua ez da hizkuntza baten bizi-indarra, hau da, faktore gehiago daude. Aipatu zituen faktore horiek hauek ziren:

- Barometroan 563 hizkuntza sartzen dira, eta horietatik, hasieran esan dudana bezala, 51. postuan kokatzen da.
- Barometroak sare sozialei inportantzia handia ematen die: Wikipediak euskaraz 160.000 artikulua ditu guztira, eta 280 hizkuntza izanda, euskara, 35.en postuan ipini zuten. Beste sare sozial batean, Twitterren, hain zuzen, soilik 38 hizkuntzen artean erabaki daitezke eta euskara horietako bat ezarri zuten.

- Belaunaldien arteko transmisioa (hau faktore garrantzitsua da):
  - Hego Euskal Herrian:
    - Bikote euskaldunen artean, %100.
    - Bikote mistoetan, %80.
  - Ipar Euskal Herria:
    - Bikote euskaldunetan ere oso eskas.
- Zertarako erabiltzen da hizkuntza, alegia, zein kasuetan hitz egiten den hizkuntza.
- Hizkuntzarekiko nahiz komunikatzeko jarrera, hots, nola erabiltzen den hizkuntza.
- Lanaldien arteko transmisioa.
- Estatu ofizialak zein babes edo laguntza eskaintzen dieten.

### EUSKARAREN EGOERA (UNESCO):

Unesco-k munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak mailaka eta koloreka sailkatu zituen:

	arriskurik gabe
☆	zaurgarria
★	arriskuan (hemen dago euskara)
★	arrisku nabarmena
★	arrisku larria
★	desagertuta

Itziar Idiazabal, EHU-ko irakaslearen arabera, hainbat faktore hartu behar dira kontuan sailkapena egiteko:

### NOLA ATERA “ARMAIRUTIK” EUSKALDUNAK?

200.000 ez gara iristen euskal kultura kontsumitzera, esate baterako, ¼-k dira soilik kontsumitzen dutenak euskal herrian. 750.000 euskaldunetik, 40.000-k entzuten dituzte diskoak euskaraz, 33.000-k euskaraz irakurtzen dute prentsa, 116.000-k 2 liburu (euskaraz) irakurtzen dituzte, eta 500.000 euskaldunek ez dute hitz egiten euskaraz, hau da, “ezkutuan” dauden euskaldunak dira. Ematen ditugun aholkuak 500.000 euskaldun horiek “armairutik” ateratzen joan daitezkeen, honako hauek dira:

- Irakurri liburu bat euskaraz.
- Berria egunkaria eta Argia astekaria irakurri igandeetan.

- Etb1 sintonizatu 1. katean.
- Antzezlan bat ikustera joan.
- Badok, euskarazko musika entzuteko app-a instalatu.

### **ESTEKAK:**

Munduko mapa koloretsua:

<https://danivoiceovers.com/los-10-idiomas-mas-hablados-mundo/>

Gauza guztietarako:

[https://docs.google.com/document/d/1ZGocoPn6Gwhky6i\\_Tod2CIIsjADzBZqQSA9B4jOzcsI/edit](https://docs.google.com/document/d/1ZGocoPn6Gwhky6i_Tod2CIIsjADzBZqQSA9B4jOzcsI/edit)